

Arrasate

2000.eko
irailaren 8a
507. zenb.



Hamar urte gure artean

Arrasateko Gureak tailerraren urteurrena

**IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • ORAIN ETA HEMEN: DANKA ETA ULMA
KIROLAK: I. ETXEBARRIA ETA L. REKARTE • KULTURA GAIA: BERTSO ESKOLA**

Uribarri-Erguin

jaiak

LEKIN

Ile apaindegia

Jubilatuentzako prezio bereziak

Erguin, 15. Behea
Tel.: 943 79 80 23

irailak

8, 9 eta 10

XARAMELA taberna

Jai zoriontsuak

Loramendi, 1 (Arimazuri
Plaza) Tel.: 943 79 61 64

HERMI SALOIA

ILE APAINDEGIA
MANIKURA

Erguin, 3 bis • ARRASATE
Tel.: 943 79 72 56

AMATA LORATEGIA

Jai zoriontsuak izan!

Usaetxe Plaza, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 36 / 943 79 46 75

Egazka

Ondo pasaul!

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 00 34



Taberna-Jatetxea

Era guztietako
bazkari eta
menuak

Larrea Plaza, 5
ARRASATE
Tel.: 943 77 01 69



Jai zoriontsuak izan!!

Udala bidea, z/g
Tel.: 943 79 77 74
www.euskalnet.net/erguineskola



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasalekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte ederretako
materialean
%25-30eko deskontua

Jai zoriontsuak izan!!!

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37 • 20500 ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70



HARATEGIA • URDAITEGIA
Erguin, 12
Tel.: 943 77 07 29



• FOTOKOPIAK •

Isasi, 16 - Behea Tel.: 943 70 27 71
EIBAR

Erguin, 1 - Behea Tel.: 943 77 07 36
ARRASATE

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Akanpadarekin bukatzeko

Ez da izango herriko zein bailarako partehar-tzeagatik, edota komunikabideetan lortu duen oihartzunagatik —bai *Arrasate Press* bai GOITB oporretan zeuden. Baina, oporretatik bueltan egin dituzten uda— laburpenetan akanpada izan duen leku txikia deigarria egin zait. Baina, nik sumatu dudan inpresioagatik, gehienon ahotan izan zen uztail bukaeran eta abuztu hasieran egin zen Abiadura Handiko Trenaren aurkako akanpada.



Iker Ezpeleta

Agian ez genuen deialdia era egokian zabaldu jendearen partehartzea bultzatzeko; bestalde, ordutegiak ez errespetatzea ez zuen partehartze horretan laguntzen. Baina, hala eta guztiz ere, honek ez ditu herrian sortu ziren morbo eta esamesak argitzen, eskale zikin eta zaratzatu batzuk besterik ez zirela esatetik, neska bat droga gaindosia harturik hil zela esaterako txutxu-mutxuak besterik ez baitziren

herrian entzun-eta. Hauek guztiak bertatik pasa ez zen jendearen ahotan, noski, Santa Barbarara etorrira harriturik gelditzen baitziren zegoen giroagatik.

Dena dela, aitortu beharra dut ez didala gehiegi harritu herriko partehartze eskasak, ezaguturik gaitan, eskerrik asko.

eta honetan bereziki, herrian dagoen pasibotasun orokorra. Hala ere, gai hauek lantzen jarraitzen dugula esan eta asteartero 19:30ean Besaide mendizale elkartearen elkartzen gara, astearte honetan egin dugun bezala.

Ez nuke bukatzerik nahi udaletxe-ari eskerrak eman gabe, utzitako azpiegitura eta laguntza guztiagatik, hala nola herriko beste elkarte batzuei ere (Txatxilipurdi, SUDC, Arrano elkarte, Jaizale...). Baina, bereziki paraje miresgarri eta lasai horretan bizi direnei, Santa Barbarako bizilagunei hain zuzen ere, jasan behar izan dituzten eragozpenengatik.

Bukatu nahi nuke Ikastolak izan duen jarrera salatuz.

Ekainean istalakuntzak (dutxak, komunak...) utziko zizkigutela hitz eman eta akanpada hasi aurretiko bi asteetan ezezkoa emanaz beraien hitza jan zuten, guri hamaika buruhauste sortuaz. Hori da gure herriko Ikastola, proiektu partehartzailea, beti laguntza eske... eta hitza jaten duena.

Aitortu beharra dut ez didala gehiegi harritu herriko partehartze eskasak, ezaguturik herrian dagoen pasibotasun orokorra

Uztailan idatzi nuenez, akanpadako helburuetako bat herri eta bailara mailan datozkigun makroproiektuen aurrean hausnarketa eta erantzun bat bultzatzea zen. Hausnarketa, indarbiltze eta elkar ezagutza eman ziren, nola ez, baina ez herri mailan behintzat.

“Beharrezkoa ikusten dut gutxieneko puntu bateratu batzuetan lan egitea eta ez egotea borroka armatuari begira”.

Goio Etxabe

50

langile ditu Danka Multimendiak.

1995ean sortu zen Saiolantik elkarte mugatu bezala, enpresako bi langilerekin. Gaur egun kooperatiba da eta Arrasaten 43 langile eta Bilbon beste zazpi ditu. 17 lan bazkide ditu eta laster batean 65 langile izatea espero dute.

A U R K I B I D E A

- Ikuspegia **3**
- **Akanpadarekin bukatzeko**
- Irakurlea idazle **4**
- Inkesta **5**
- Euren ikuspuntutik **6**
- **Arantzazura erromesaldia**
- Begi kolpez **7**
- Asteko hitzorduak . . . **8/9**
- Astearren errepasoa . . . **10**
- Orain eta hemen . . . **11/12**
- Txutxumutxuak **14/15**
- Asteko gaia **16/17**
- **Hamar urte gutxituen bizitza hobetzen**
- Aurrez aurre **18/19**
- **Goio Etxabe**
- Auzoz auzo **20**
- **Uribarri**
- Kirolak jokoan **21/22**
- Kulturaren txokoa **23/25**
- Ikusi eta entzun **26**
- Azoka plaza **28/29**
- Foto zaharra **30**

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora Kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marjio Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarría eta Gorka Etxabe. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain, Ane Barezabar (Tel.: 943 71 23 90) **Disenatzailea:** Maddi Trubueio. **Asteburuetako berriemakalariak:** Lorea Aguiriano **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatokia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Gureak Tailerra.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguailatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Ohati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 71 17 31

ARRASATEKO AHT-REN AURKAKO AKANPADA-REN BALORAZIO GISA KALERATURIKO KOMUNIKATUA:

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako akanpada egin da uztailaren 24tik abuztuaren 6ra Arrasaten. Kanpaldi hau aurrekoak baino luzeago eta herritarragoa izateaz gain, orain arteko jendetsuena izan da, bai Euskal Herriko bai estatu espainiarreko herrietatik eta baita nazioarteko beste herrialde batzuetatik etorritako jendea elkartuz. Kanpaldiak iraun duen bi asteotan egin diren bilerak, hitzaldi, mendi mar-txa, tailer, festa, kontzertu edo antzerkietan egon den parte-hartzea aipatzeaz gain, Arra-

satera hurbildutako askok proposaturiko ekintzak aipatu nahi genituzke: bideo emanaldi desberdinak, transgenikoen inguruan eztabaida, Kolonbia Planari buruz hitzaldia eta musika emanaldiak, besteak beste.

Ekintza eta eztabaida hauek guztiak egungo ekonomia eta gizarte eredu menperatzailea zalantzan jartzeko beharra agerian jarri dute eta berau zilegiztatu baino egiten ez duten irtenbideak kritikatu dira. Ildo beretik, jardunbide instituzionalistak, burokratikoak eta ordezkatzailak kritikatu dira. Hortaz, borrokan pertsonen partehartze zuzena aldarrikatu da eta ekintza zuzen hori gauzatzeko era desberdinak aztertu.

AHT, Eibar-Gasteiz autobidea edo Durango-Beasain korridorea bezalako egitas-moei buruz, azpiegitura hauek multinazionalak ezarritako globalizazio prozesuekin eta merkatuaren batuketarekin duten zerikusia salatu da. Ondorioz, gizarte desberdinerien eta lehiaren areagotzeak, nekazal eremuen kaltetan dihoan hazkunde hiritarrak, kontsumismoaren gorakadak, energia proiektu erraldoiak edo eolikoaren iruzurrak gutxi batzuentzat aberastasun eta boterearen metaketa dakar eta gehiengo miseria hutsera bultzatzen dute.

Baikorki baloratzen dugu akanpada, borroka ezberdinen berri zuzenagoa eduki eta

pertsonen arteko topagunea izan denez, Eibar-Gasteiz autobidearen eraikuntza lanen aurka ekintza bat prestatzeko balio izan duelako eta baita Arrasaten bertan eginiko kalejira koloretsu eta zaratsuan izan niko partehartzeagatik.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu Arrasateko herriari eta udalari utzi dizki-gun instalazioengatik eta dei egiten dugu egungo garapen ereduarekin kontzientzia kritikoa hedatu eta partehartze autoantolatua bultzatzeko bizi-modu justuago, solidario eta autogestionatu baten alde.

AHTren Aurkako
Asanblada

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 8

- Zabala, Zarugalde

Larunbata, 9

- Azkoaga, Ferrerías

Igandea, 10

- Azkoaga, Iturriotz

Astelehena, 11

- Korkuera Musakola

Asteartea, 12

- Zabala, Zarugalde

Asteazkena, 13

- Ruiz, Maalako Errabala

Osteguna, 14

- Morales, San Andres

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Uribarriko baserritar eta kaletarrek jai bakarria izan beharko lukete?

Asteburu honetan kaletarrek ospatuko dituzte festak. Baserritarrek San Bartolomeak ospatu zituzten



Nerea Sanchez Garai
(11 urte)
Ikaslea

Abuztu bukaeran ospatu-ko nituzke auzoko jaiak, bi jai egin barik. Horrela, indartsuagoak izango lirateke.



Aureli Ariznabarreta
(71 urte)
Erretiratua

Jai bakarria egin beharko litzateke, San Bartolome egu- nean, abuztu bukaeran.



Borja Rodriguez
(12 urte)
Ikaslea

Abuztu bukaeran eta irai-lean ospatuko nituzke. Zenbat eta jai gehiago, hobeto!



Zigor Garcia
(26 urte)
Langilea

Nekazal auzoko jaiak, alde batetik, eta Uribarri-Ergui-ngoak bestetik. Horrela bakoit- zaren ohiturak sustatzeko.



Mertxe Etxeberria
(73 urte)
Erretiratua

Bakoitzak berea, lehenen- go bat eta gero bestea.



Juanjo Uribesalgo
(38 urte)
Langilea

Uribarriko baserritarrek ez luke nahiko, baina kaleko jaiak kendu egin daitezke lasai asko. Hala ere, umeentzako nola egingo lirateke gauzak?



Esther Sanchez
(36 urte)
Etxekoandrea

Ondo deritzot, baina ez dute nahiko.




Josu Jimenez
(19 urte)
Ikaslea

Gaizki deritzot, Ergui-eko jaiak, Erguineko jaiak dira.

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Adierazpen askatasuna

Kazetari bezala nire kide bati elkartasuna adierazteko aprobe txatu nahi du ikasturte berriko lehenengo zutabetxo hau. *Ttipi-Ttapa* aldizkariko kazetariari buruz ari natzaizue. Jon Abrilek Entzutegi Nazionaletik irteten ari zen autobaten irudiak hartu zituen eta Entzutegi Nazionaletiko Juan del Olmo epaileak sei segundotan grabatza- gatik "ETArekiko kolaborazioaren intentzioa" leporatu dio. Behin baino gehiagotan gertatu zaie nire lankideei ere irudiak hartzea joan eta arazoak izatea Ertzainarekin. Aste honetan bertan, nire lankide batek ere lekuko bezala deklaratu du epaiketa batean eta fiskalaren hitzetan "balio gehiago dute ertzainen hitzek lekuko guztienak baino". Non dago botere judizialaren objektibotasuna? Ez al da oinarrizko eskubide bat, adierazpen askatasuna?

Jon Abrili elkartasuna adierazi nahiko nioke, baita Arrasate Presseko kazetariaren partez ere, adierazpen askatasuna eta prentsa askatasunaren alde egiteagatik.

Marijo Deogracias



Arantzazura erromesaldia

* Eli Alzola

Urte bat gehiagoz, eta ohitura zaharrei jarraituz, Arrasateko herriak Arantzazuko Santutegirako erromesaldia ospatuko du. Egun, datorren igandea izango da, irailaren 10a, Gipuzkoako patrioiaren egunari jarraitzen dion egunean.

Oinezko erromesak Kontzeziñotik aterako dira goizeko 06:30ean, Bedoñako biderantz, errepidetik. Handik Urkuluko urtegirantz, Ure-xola auzora, Jaturabeko urte-gira eta Gesaltzara. Hara goizeko 10:00etan iritsiko dira. Toki horretan Arrasateko autobusez joango direnekin elkartuko dira, eta frantziskotarrek hartuko dituzte hortxe, horrela, elkarrekin, eta otoitz eginez—errepidetik—Arantzazuko Santutegirako bidea jarraitzeko, ordubeteko bidea gutxi gorabehera. Goizeko 11etan Santutegiaren sarreran ongietorria emango diete erromesei frantziskotarrek eta On Jose Maria Astigarraga parrokoak; gero prozesioan basilikako ateraino

joango dira "accion de gracias" ekintzetan parte hartzeko. Eguerdiko 12etan, meza santua egingo du parrokoak eta hantxe egongo dira Arrasateko udal ordezkariak.

Autobusean joan nahi duzuenok Ekuador Bidaia agentziako bulegora joan zaitzekete eta hantxe emango dizuete jakin beharreko informazio guztia, bai eta joan eta etorriko ordutegiaren berri ere.

Arantzazutik esan digutenez, Arantzazuko amari aurre egongo zaion bisitak berezitasun bat dauka, batez ere sinestunendako; izan ere, Jubileo 2000 ospatzen da aur-

ten. Jubileoak fedearen giza aurpegia erakusten du, elizaren giza aurpegia, gertutasuna eta materiala erakusten du. 2000. urtea iristean, Nazaretoko Jesusen aurpegia giza-tiarragoa egin da. Arantzazuko gure ama Jaungoikoak munduan egin duen lanaren adibiderik onena da. Maria-rengan ikusten dugu fede berriaren edertasuna.

Jubilea berritasun pertsonalaren eta giza berrikuntzaren eskaintza da; Jubilea jaiatzeko ari da, anaitasunaz ari da, gure herriarentzako bakearen aldeko indarra sortzeaz ari da, pobreziaz eta elkartasunaz. Azkenengo puntu honi buruz, Santutegiko nagusiak erabaki du, Jubileo 2000ko erromesek ematen duten dirua herri ez garatu eta margina-tuetako proiektuei laguntzeko erabiliko dela, ospitaleak eraikitzeko, etxeak egiteko, umezaintzak egiteko, gaizki hazitako umei laguntzeko eta pobrezian bizitzeak dakarren beste hainbat gauzetan erabiltzeko.

Arrasateko eliztar asko espero da Arantzazurako erromesaldian, horrela, eta aurreko urteetan bezala, partehartze handiaren adibidea izan gaitezen, bai mendiz joanda, errepedez oinez edo autoz, zein autobusez.

* Erromesa

“
Jubilea jaiatzeko, anaitasunaz, gure herriarentzako bakearen aldeko indarra sortzeaz ari da
”

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebeldun hizkiak

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

hildakoak

- Jose Luis Rodríguez Galan, abuztuaren 31n. 47 urte.
- Francisco Abalos Garcia, irailaren 1ean. 64 urte.
- Jesus Letamendi Arrazola, irailaren 1ean. 74 urte.
- Justiniano Velasco Astorga, irailaren 3an. 79 urte.
- M. Luisa Auzmendi Mendizabal, irailaren 3an. 88 urte.

jaiotzak

- Jokin Errasti Agirrebetia, abuztuaren 17an.
- Aitor Cortes Agirre, abuztuaren 4an.
- Jokin Godoy Gutierrez, abuztuaren 26an.
- Pello Goikolea Bedia, abuztuaren 8an.
- Andoni Urrutia Tena, abuztuaren 28an.
- Andoni Hernandez Axpe, abuztuaren 26an.

ezkontzak

- Miguel Angel Azpiazu eta Francisca Romero Fernandez, irailaren 2an.


Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua




OSTIRALA 8

Oskarbiak izango dira nagusi, nahiz eta goiz partean lainoa izango dugun. Tenperaturak gora egingo du.



LARUNBATA 9

Goizeko behelainoak oskarbiei pasako die txanda. Tenperaturak igo-tzen jarraituko du. Hala ere, lainoak ugaltzen joango dira egunean zehar.



IGANDEA 10

Goizean eguraldi gustagarria izango dugu, baina arratsaldean euri tanta batzuk izan genitzake. Giroa freskatu egingo da.

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91

mezak

San Joan parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:30 (erdaraz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza

- Jaiegun bezpera eta larunbata**
19:00 (erdaraz)
- Igandea**
12:00 (erdaraz)



CAMBRIDGEko azterketak

(FCE, CAE, CPE, BEC)

2000ko abenduko deialdia

Matrikulatzeko epea: Irailaren 11tik 25era
Informazio gehiago gure bulegoetan

Araba Etorbidea, 4 • **ARRASATE** • Tel.: 943 71 20 55
Olakua, 14 • **OÑATI** • Tel.: 943 71 60 00



Bañez doktorea, 1 • Tel.: 943 79 63 85 • ARRASATE

8

ostirala

■ ZINEMA

Una historia verdadera, 19:30 - 22:00, Alai zineman.

■ JAM ARETOA

No Fun at All eta *No Use for a Name* taldeen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. Aurrez erosiz gero, 2.100 pezeta kostako dira txartelak. 22:00.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Señor No, *Obligaciones* eta *Los Padrinos* taldeek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean. 22:00.

9

larunbata

■ ZINEMA

Mi perro Skip, 17:00, eta *El Patriota*, 19:00-22:00, Alai zineman.

■ AUTOBUSAK BILBORA

Ehk Bilbon "Burujaibetza eta Bakea" leloarekin deitu duen manifestazioan parte hartzeko autobusak antolatu dira. Garibain, 16:00. Txartelak Iratin salgai, 1.000 pezetan.

10

igandea

■ ZINEMA

Mi perro Skip, 17:00, eta *El Patriota*, 19:00-22:00, Alai zineman.

■ ERROMESALDIA
ARANTZAZURA

Arrasatearrek Arantzazura erromesaldian joateko aukera izango dute domekan. 06:30ean, oinezko igoera izango da Kontzeziñotik; 11:00etan, ongi etorria Arantzazun, eta 12:00etan, meza. Ecuador bidaia agentziak autobusak antolatu ditu: joateko, Garibain, 09:30; bueltatzeko, 13:30 eta 17:00.

11

astelehena

■ ZINEMA

El Patriota, 19:00-22:00, Alai zineman.

12

asteartea

■ ZINEMA

El Patriota, 19:00-22:00, Alai zineman. Ikuslearen eguna.

ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

2000rako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren arabera, beherago aipatzen diren funtzionario plazak hornitzeko Oinarri-arauak onartu dira:

a) **Sarbide Irekia:**

- 1, Administrazio Orokorreko Teknikaria
- 1, Ingurugiro Teknikaria
- 1, Aukera Berdintasunerako Agentea
- 1, Ingurugiro Eskolako Irakaslea
- 1, Liburuzaina
- 1, Zerbitzuetako Ikuskaria
- 1, Gazte Informatzailea
- 5, Udaltzain
- 1, Administralari laguntzailea
- 2, Kultur eta beste ekintzetako operaria
- 1, Zerbitzu anitzetako operaria (peoia)

b) **Elbarriei erreserbatuta:**

- 1, Administralari laguntzailea (egun erdiz)
- 1, Ordenantza

Oinarriak udaletxean ikus edo/eta jaso daitezke. Apuntatzeko epea Iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean irekiko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Uribarriko jaiak

8 EGUBAKOITZA

- 17:30 Txokolate jana
(Erguineko Gazte-Txokoan).
19:00 Meza Uribarriko Parrokian.
19:00 Erraldoi eta Buruhandiak.
19:30 Txikiteoa trikitilariekin.
20:30 Erretiratuentzako afaria.
23:00 Dantzaldia (Usaetxe plazan).

9 ZAPATUA

- 10:00 Diana.
11:00-13:30, 16:00-19:30 Txikitxokoa
(Usaetxe plazan).
16:00 Mus txapelketa (Erretiratuena etxean).
19:30 Txikiteoa trikitilariekin.
19:30 Alkoholik gabeko diskoteka.
23:00 Dantzaldia (Usaetxe plazan).

10 DOMEKA

- 10:00 Diana.
10:30 Atletismo Lehiaketak (Iturripen).
12:30 Herri kirolak, bertsolariak eta trikitilariak (Arima Zurin).
17:00 Gorriti eta bere animaliak (Arima Zurin).
18:00 Heriz magoa eta Txikiglub (Arima Zurin).
20:00 Txinparta taldearen saioa (Arima Zurin).
22:00 Azken traka (Udalpe plazan).

■ **UDALEKUETAN GALDUTAKO GAUZAK**
Txatxilipurdiren udalekuetan ibili diren umeek hainbat gauza galdu zituzten, eta Txatxilikoek bi poltsa bete gauza bildu dituzte. Beraz, zer edo zer faltan bota badute haur horiek, Txatxilipurdiren egoitzatik pasa daitezela.

■ **MAKINA-ERREMINTA IKASTAROA**
Irailaren 15a arte luzatu du udalak makina-erreminta ikastaroan izena emateko epea. Emakumeei zuzendua dago ikastaroa.

■ **KIROL IKASTAROK**
Irailaren 11n hasiko dira aerobik eta mantentze soinketa ikastaroak Musakolako Kiroldegian. Igeriketa ikastaroa irailaren 18an hasiko da.

Argibide gehiagorako edo izena emateko, deitu 943 77 16 77 telefonora.

■ **GAZTE TXOKOAK**
Irailaren 12an, Uribarri, San Andres eta Musakolako Gazte Txokoek ikasturte berriari ekingo diote,

ordutegi honekin: martitzen eta egubakoitz bitartean, 17:00-20:00.

■ **GAZTE ETA SEXOLOGIA BULEGOAK**
Joan den astean oker bat egin genuen Gazte eta Sexologia Bulegoen ordutegia ipintzean. Dagoeneko ohiko ordutegia dute: Gazte Bulegoa, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00; Sexologia Bulegoa, astelehenetan 17:00-20:00 eta eguenetan 15:00-18:00.

■ **IKASTURTE HASIERA SAN VIATORREN**
San Viator ikastolan honako egun eta orduetan hasiko da ikasturtea: irailaren 13an, 9:00etan, Lehen Hezkuntzakoak; 10:30ean, DBHkoak, eta 11:30ean, Batxilergokoak. Irailaren 15ean, 10:00etan, Heziketa Ziklokoak.



Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

Debagoieneko komunikazio enpresa batek

TELEBISTAKO ERREDAKTORE BURUA behar du

Erredakzio taldea zuzenduz, telebistako albiste zerbitzuen ardura izango du.

Eskatzen da:

- Kazetari izatea, telebistan esperientziaduna.
- Lantaldeak zuzentzeko gaitasuna.
- Euskaran eta ordenagailuen erabilera maila ona.
- Gidatzeko baimena eta autoa.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Etorkizun handiko proiektuan partaide izatea.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali, irailaren 18a baino lehen, ondoko helbideetako batera:

estenibar@euskalnet.net edo 95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

astea bi hitzetan

■ Herri autobusa

Ehun bat pertsonaren aurrean aurkeztu zen Mondragoeko herri autobusa pasa den egubakoitzean. Xabier Zubizarreta alkatearen esku egon zen aurkezpena. Alkatetik adierazitakoaren arabera, herriko udalak herri autobusaren aldeko apustu gogorra egin du, herritarroi eskainitako zerbitzu garrantzitsu moduan. Horrexegatik, udalaren nahia da arrasatearrok herri autobusa erabiltzea.

Autobus berriak ere ikusi ahal izan zituzten herritarrek, Herriko Plazan egon baitziren ikusgai. Aurkezpe-

nera gerturatu ziren pertsonak ere autobusean gora eta behera ibili ziren.

■ Auto istripua

Zorigaitzoko auto istripua egon zen zapatu goizaldean Aretxabaletako saihe-bidean. Hiru autok elkar jo zuten eta, ondorioz, 27 urteko Eskoriatzako mutil bat hil egin zen, Juan de Dios Sanabria gaztea. Istripua izan zuten beste biak, 28 urteko gizonetako eta 42 urteko emakumezkoa, Mondragoeko eskualde ospitalera eramane zituzten.

Ertzaintza, istripua argitzeko lekuko bila dabil.

■ Autoak harrapatuta

Asteazken goizaldean, berriz, Aramaiora bidean, Mondragoeko gizonetako bat harrapatu zuen zuto batek eta hil egin zen. Anastasio Uribetxeberria, 65 urteko gizonetako paseatzen zebilen Aramaio inguruan Hyundai Lantra markako auto batek harrapatu egin zuenean. Kolpearen ondorioz, gizonetako errekararen erori eta bizia galdu zuen. "Carnicero" ezizenarekin zen ezaguna Anastasio Uribetxeberria, harategi bat izan zuelako. Erguin kaleko bizilagun hau erretiratu berri zen Bergarako Geyser enpresatik. Goian Bego.



■ Goio Etxaberi ongi etorria

Ehunka lagunek eman zioten ongi etorria Goio Etxaberi pasa den ostiralean. Herriko hainbat elkarteren lore sortak, dantzarien agurra eta Seber Altubera gerturatutakoen txaloak jaso zituen. Preso ohiak berak ere hartu zuen hitza eta preso eta errepresaliatu guztiak gogoratu ondoren, borrokan segitzeko gonbitea egin zuen. Ondoren, kale agerraldian abiatu ziren denak.

Omenaldia, Uarkape pilotalekuan egin zen herri-afariarekin bukatu zen.

“EAJ eta EAri exijitu nahi diogu Udalbiltzarekiko jarrera erabat alda dezatela eta zuzendaritza batzordean onartuta dagoena betetzea. Hori da Euskal Herri nazionalaren eraikuntzari egin dakioken ekarpenik eraginkorrena eta gure herrian hain ondorio larriak izaten ari den gatazka gainditzeko modua”

XABIER ZUBIZARRETA
Radio Euskadi
(2000.9.5)



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Ulma eta Danka batera arituko dira



Mikel Lizarralde, Gustavo Carrero eta Carlos Sarabia prentsaurrean.

“Arrasateko Danka eta Oñatiko Ulma enpresek urtebetzedo elkarrekin bizitzea erabaki dute, ezkondu aurretik”. Hitz horiekin iragarri zuten enpresa bietako arduradunek Danka eta Ulmaren arteko hitzarmena. Asteazkenean emandako prentsaurrean adierazi zutenenez, Dankak, beste lau enpresaren proposamenak baztertu ondoren, Ulma aukeratu du elkarlanerako, kooperatiba delako eta antzeko baloreak dituelako.

Hitzarmenaren arabera, datorren astean bertan, asteartean, traste guztiak hartu eta Oñatira joango da Danka.

Urtebeteren ondoren dena ondo dihoala ikusten bada, Ulmaren multimedia adar bihurtuko litzateke Danka.

Hitzarmen horren bidez, Dankak Ulmak duen indarraren babesa lortuko luke. Ulmak, berriz, teknologia

berrien eta Interneten merkatuan sartzeari lortuko luke.

HANDIA ETA TXIKIA

Danka Multimedia orain bost urte sortu zuten bi gaztek, Saiolanen laguntzarekin. Gaur egun 50 langile ditu, 43 Arrasaten eta 7 Bilbon, eta teknologia berrietan eta Interneten egiten du lan. Kooperatiba moduan antolatuta dago eta 250 milioiko fakturazioa izan du.

Dankaren ondoren, Ulma izugarri handia da: 2.000 langile ditu, 4 kooperatibatan ari direnak lanean. Zazpi negoziotan egiten du lan eta aurten 45.000 milioi pezeta fakturatu ditu.



Enplegua bultzatzen

Udaleko Garapen Ekonomiko eta Enplegurako Sailak abian jarri berri du enpresa jarduerari zuzendutako dirulaguntza programa. Lanpostu finkoak sortzearen jaso ahal izango dira laguntza hauek eta 2000. urteko urtarilaren 1etik aurrera sortutako jarduerari zuzendutako ekimena da.

30 milioi pezeta bideratu du udalak horretarako. Lanpostu finko bakoitzeko, 600.000 pezeta jaso ahal izango dira, langilea emakumea bada, 690.000 pezeta eta ezindua edo gutxitua baldin bada, berriz, 720.000. Informazio gehiagorako 943 79 09 00 telefonora deitu.

Horrez gain, emakumeei zuzendutako makina-erreminta eta doikuntzako ikastaro bat ere antolatu du enplegu sailak. Eskolak irailaren 19tik aurrera hasiko dira.

Izena emateko epea datorren hilaren 15ean bukatuko da. Emakume langabetuei zuzendutako ikastaroa da hauxe.

Langile finko gehiago Fagorren

Astelehenean jarri zituzten jendaurrean, Fagor Kooperatibak hartuko dituen langile berrien zerrendak. Guztira 328 langile finko berri hartuko ditu Fagorrek bere kooperatibetan. Hasiera batean, 275 bazkide egiteko asmoa zuen Fagorrek, baina Mikel Ugarte langile sailleko arduradunak azaldutakoaren arabera, “zabaldu egin zen prozesua, kooperatiben beharretara egokitzeko”.

Fagor Kooperatibak 1.000 bazkide berri gehi-

go egin ditu azkenengo hiru urteetan. Iaz, ia 500 gazte sartu ziren eta 1998an, berriz, 200 langile inguru.

Datozen egunotan errekamazio epea zabalduko da eta urtarrilerako langile berriak euren lanpostuetan izango dira.

BAZKIDE BERRIAK

Fagor Elektratresnak	250
Fagor Elektronikak . . .	38
Fagor Automation	7
Fagor Industrial	23
Copreci	10

Pintaketak



Pasa den asteburuan pintaketak azaldu dira herriko hainbat lekutan. GAL siglak eta gurutzak margotu dituzte Portaloian herriko preso- en argazkien gainean; azo-

kan ere azaldu dira antzekoak eta baita San Andres auzoan ere.

Argazkian ikusten denez, Gudarien Plazan ere azaldu dira pintaketak.

Aldaketak udal gobernuan

EAJk udal gobernu uztea erabaki zuenez, ordura arte bere zinegotziek betetzen zituzten karguak EA eta EHko zigegotziek hartu dituzte. Horrela, bada, Itsaso Garairen ordez Jose Mari

Urizar izango da 2. alkateorde eta berak beteko du, gainera, Maria Angeles Iñurritegiren auzoetako ordezkari. Lan batzordea, berriz, Juan Ramon Garaik beteko du Jose Mari Loitiren ordez.

GOBERNU BATZORDEA

Gobernu Batzordea hemendik aurrera lau kidek osatuko dute, bosten ordez. Itsaso

Garairen kargua Jose Mari Urizarrek beteko du, baina ez da 5. kiderik egongo.



Xabier Zubizarreta
EH / Alkatea



Ino Galparsoro
EH / 1. alkateordea



J. M. Urizar "Ametzu"
EA / 2. alkateordea




Joseba Ugalde
Ezker Batua

BATZORDE IRITZI EMAILEAK

12 izango dira hemendik aurrera Batzorde Iritzi Emaileak.



Jose Mari Urizar
EA/Zerbitzuak eta auzoak



Juan Ramon Garai
EH / Lana

Eraikuntza proiektuetan adituak



Arizmendi Kooperatibak titulu berri bat eskainiko du aurtengo ikasturteetik aurrera: Eraikuntza Proiektuen Garapen eta Aplikazioa. Izenak dioen moduan, eraikuntza proiektuetako arkitekto eta aparejadorek laguntzaileei zuzendutakoak izango dira ikasketak eta Lanbide Heziketako goi mailako titulua eskuratu ahal izango da. Orain arte, EAEn horrelako ikasketak egiteko hiru hiriburuetako batera joan beharra zegoen.

PROFESIONAL BEHARRA

Gaur egun gai diren langile eskari handia omen dago eraikuntza arloan, baina profesional gutxi omen daude merka-

tuan. Horixe da Arizmendi Kooperatibak egindako azterketatik ondorioztatzen dena eta horrexegatik erabaki du Debagoieneko kooperatibak ikasketak berri hauek eskaintzea.

Gainera, ikasketen garapenerako LKS, SUKIA Eraikuntzak, ASCONGI elkarte eta Debagoieneko Mankomunitatearen laguntza ere jasoko du Arizmendik.

Ikasketak Almen ikastetxean egingo dira eta oraingoz, 15 ikasle hasiko dira lehenengo ikasturte honetan. 2.000 ordu izango dira eta 400 praktika-ordu egin ahal izango dira. Interesatuok zabalik ditu izena emateko epea eta zerrenda.

Goienak baditu ordezkariak

Goiena kooperatiba badabil poliki-poliki bidea urratzen. Oraingoan, bere lantalde nagusiko partaideak izendatu ditu, Zuzendaritza Kontseilua, hain zuzen ere. Estepan Plazaolak hartu du komunikazio kooperatiba berri horren lehendakari. Mondragoetarra iza-

tez, Bergaran bizi da. Estepan Plazaolaren ordezkari moduan, Esteban Arriaran oñatiarra ari tuko da, Laixan Euskara Elkarteko lehendakaria. Idazkari lanak, berriz, aldizkari honetako zuzendariaren, Marijo Deograciasen, esku geratu dira.

Azken etxebizitzak salgai Antzuolan

90m² erabilgarriak
EZ GALDU AUKERA HAU!!

20.000.000 PTA

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.
Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**
Tel.: 943 73 05 25

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Finca: 791811
Faxa: 792941

ARETXABAETA

Jokaldirik onena!



ARKO

2000-2001 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE eta EGA. Ikastaro bereziak: merkataritza, sakontze, Arrasateko euskara...

Erritmoa

2 ordu egunero.
(Erritmo bereziak ere baditugu).

Beka sistema daukagu

Bulego ordutegia

Goizean: 10:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-19:00

Matrikulaldia

Irailaren 4tik 15era.

HABEREN dirulaguntzaz.



ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 • Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net



Zatoz eta eman izena!

IDIOMASTER

2000/2001 IKASTURTEA

HIZKUNTZAK:

- Ingelesa.
- Frantsesa.
- Alemana.
- **Italiera (berria).**
- Jatorrizko irakasleak.
- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: Heldu, gazte eta umeentzako hasiera ikastaroak (6 urtetik aurrera).
- Ordu-tegi bereziak txandaka lan egiten dutenentzat.
- Cambridge azterketarako prestakuntza.
- Ikasturtearen hasiera: Urriaren 2a.

Otalora, 29 - behea • Tel./Faxe: 943 79 07 84 • ARRASATE • e-maila: idiomaster@euskalnet.net

UDALBATZA GURPIL GAINEAN

EZKONBERRIAK EGIPTORA



Irailaren 2an ezkondu ziren Paki eta Miguel Angel, Uribarriko baselizan. Orain Egipton daude, ezkonbidaian, baina Arrasateko lagun taldeak bihotz-bihotzez zoriondu nahi ditu, eta baita geuk ere!



Udal ordezkariak autobusean sartuta aurkitu genituen joan den astelehenean. Ez, ez ziren osoko bilkura egiten ari, laster Arrasate zeharkatuko duen herri autobusa probatzen baizik. Ea, bada, gure txanda noiz iristen den!

ARRASATE-SANTIAGO

I. ITZULIA



Mikel Arregi, Aitor Elortza, Iñaki Juldain, Endika Martin, Raul Blazquez eta Angel Blazquezek Dorleta-

ko Ama Txirrindularitza Eskolako 2. urteko talde kadetea osatzen dute. Argazki hau ez zuten inongo itzuli-

tan atera, Santiago Bidean zihoazela baizik. Ikasturte berrirako zortea emango ote die santuak?

MARIXEKA EGUNA ARAMAION


Eguraldi
tristeak ez
zituen aramaioa-
rrak beldurtu, eta
erruz bildu ziren
domekan, Marixe-
ka Eguna ospatze-

ko. Mezetara joan, dantza eta bertso saioak ikusi,
mokadutxoa jan eta berriketan ibili ziren.

IZENAK

Ramon Osinaga

48 urteko mondragoetar hau izendatu dute Arrasate-Aretxabaleta Institutuko zuzendari berri, Ramon Barrutiabengoaren ordeaz. 20 urtez irakasle izana da, Arrasaten, Oñatin eta Ordizian, eta Bergarako Institutuko zuzendari izan zen hiru urtez. Latina, grekera, informatika eta musika irakatsi izan ditu, baina orain, irakasgai garrantzitsuago bat du aurrez aurre: zentroko gidaritza.



ESKORIATZAN ERE, SAN JOANAK



Eskoriatzako San Juan kalekoak formal-formal joan ziren 1994tik ospatzen duten jaira. Bazkarira inor gutxik egin zuen huts, eta kalekoetatik gain herriko beste gune batzuetakoak ere giro bikainaren berora hurbildu ziren.

Loramendi kirolak

HELDU ETA UMEENTZAT

- Sudaderak
- Kamisetak
- Prakak
- Zapatilak
- Bermudak

ZATOZ!

%50

San Andresen eta Garibain

Hamar urte gutxituen biz

“Sortu zenean, 50 langilerentzako lantegia izatea aurreikusi zen; orain, aldiz, 98 langile eta 5 begirale ditugu lanean.” Javier Barrero Arrasateko Gureak lantegiko zuzendariaren hitzok islatzen dute, tailer hori zabaldu zenetik gaurdaino izan duen garapena eta hazkundea.

Arrasateko Gureak lantegia Debarroko hirugarrena da, Bergarako eta Eibar-koaren ondoren sortua. Hala ere, ez du ibilbide motza, hamargarren urteurrena bete baitzuen ekainean. Urte asko dira herriko eta inguruetako gutxitu fisiko eta psikikoei lan irtenbide bat ematen, hor zegoen hutsunea betetzen, gutxituek gizartearen segurtasunez txertatzeko behar dituzten aukerak zabalitzen. Sasoi ona, alegia, izan diren eta izango diren eronkei gainbegiratu bat emateko.

ATZEGIREN EKIMENA

Arrasateko lantegiaren historia, Gipuzkoako Gureak tailer guztien historia da. Atzegi elkartearen ideiarekin fruitu bezala jaio ziren lantegi hauek. Gutxituen aita-amak osatzen zuten Atzegi elkarte, eta euren seme-alaben egoera hobetzea zuten helburu, kasu honetan, lan arloan. Lehen tailerra oso gertu zabaldu zen, Bergaran hain zuzen. Gipuzkoa osoan 15 lantegi daude gaur egun, eta kopuru hori las-

ter handituko da, Bergaran bigarren bat egiteko asmoa dagoelako. Hasieran, gure inguruko gutxitu gehienak Bergarara joaten ziren, eta hango betekadari erantzuna emateko egin zen Arrasatekoa. Bidekurutzeta kalean zabaldu zen, ASAM lantegiari erositako orube batean, eta 20 langile hartu zituen. Orain, ia 100 daude, gizonezko nahiz emakumezkoak, eta adin guztietakoak: asko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu bezain laster hasten dira lanean, eta erretiratu arte egoten dira bertan.

BESTEEN EKOIZLE

Gureak lantegiek ez dute produkzio propioa, beste enpresa batzuentzat ekoizten dute. “Lehengaia eurek ematen digute, eta guk produktua egiten dugu, baina laster lehengaia geuk ipintzeko asmoa dugu”, dio Javier Barrerok, Arrasateko lantegiko zuzendariak. Copreci, Fagor edo Alecop dira euren bezeroetarikoz batzuk: enpresa horientzat kableak eta etxetresna elektrikoentzako osagarriak



Sortu zenean, 50 bat langile zebiltzan. Gaur egun, 100 inguruk egiten du lan Arrasateko

egiten dira, batik bat. Laster, Abadiñoko beste bat gehituko zaizkie hauei, eta automozioan ere hasiko dira ekoizten. Antz gutxi du ikuspegi honek orain 10 urte nagusi zenarekin: “Bezero kopurua asko ugalduta da. Lana bera ere askoz konplexuagoa da: lehen Altunarentzat sarrailak egiten zituen makina bat maneiatu baino ez zuten egiten”, diosku Barrerok.

LANGILEAK

Egia esan, lantegi hauetako enpleguak gutxitasunen bat duten lagunak izan arren, ez dago aparteko ezaugarririk: beste edozein lantegi bat bezalakoxea da, gutxituek eskatzen duten arreta berezia ahaztu gabe, jakina. Baina, horixe da salbuespen bakarra, arduradunek eurek azpimarratzen duten legez. Juridikoki, gehienak ez dira enpresa normale-



modua hobetzen



ken.

tako langileengandik bereizten: Arrasateko lantegiko %60k kontratua du, Gizarte Segurantzaz kotizatzen du eta erretiro pentsioa jaso ahal izango du. Begiraleek txosten bat idazten dute; horren arabera, lan mota bat edo beste egin eta gehiago edo gutxiago kobratzen du langile bakoitzak.

Baina, urrituentzako erakunde den neurrian, Gureak ez da lantoki soil bat, zerbitzu bat ere bada, Javier Barrerok azaltzen duen moduan: "Langileen %40 okupazio erregimenean daude. Horrek esan nahi du arreta berezia behar dutela, eta hori da hemen ematen dieguna. Lan zehatzak egiten dituzte eta ordainsaria jasotzen dute, baina ez dira

enpleguak." Horiek, legez, ezin dira erretiratu, eta adin batera iristean, Eguneko Zentroetara joaten dira: "Egun erdi tailerrean ematen dute, eta bestea zentro berezi horietan, eta bertan beste ekintza lasaia-egoak egiten dituzte", dio arduradunak. Arrasateko gunean ez da horrelako kasurik gertatu, baina gertatzen denarako izango da irtenbidea: Bergaran, bigarren lantegi bat ez ezik, Debagoieneko lehenengo Eguneko Zentroa egiteko asmoa dago; oraindik Donostia eta Ordiziakoak dira bakarrak.

Lan mota bata zein bestea izan, langile guztiek jasotzen dute diru kopuru bat egindako ahaleginarengatik, eta hori da, zuzendariaren ustez, euren lorpenetako bat: "Urritu fisiko zein psikikoen egoera ekonomikoa hobetzea lortu dugu. Gero eta lagun gehiagori eman diogu lana, eta gero eta gehiago dira kontratadunak."

Gureak-en erronketako bat jendea promozionatzea da, gero eta urrutirago heltzen laguntzea; hori dela eta, begiraleen txostenek esaten dutenaren arabera, erregimen bategatik bestera igotzeko aukera dago. Baina, ez hori bakarrik.

Bezero kopurua asko ugaldu da. Lana bera ere askoz konplexuagoa da

ERRONKAK

Jeneralean, Gureak-en lanean hasten den pertsona batek bertan jarduten du harik eta erretiratu arte: ez dira beste enpresetara joaten. Muga hori behe-bera botatzea, horra hor Gureak-en nahia eta itzaropena. Arrasateko tailerreko langile izandako bat Altunan dago gaur egun, lan kontratu normalarekin, baina, tamalez, salbuespena da. Beste formularik ere bada: "enkla-beak", hau da, enpresa konbentzionaletan urrituek osatutako lan taldeak. Arrasateko lantegiko kudeatzailea baikor agertzen da aukera horren inguruan: "Eibarren horrelako zortzi enkla-be sortu dira, eta gaur egun Altunan dago Arrasateko bakarra. Aukerarik bada, gero, baina enpresen esku dago", aitortzen du.

Dena dela, Gureak-en magalean, kontratupean dauden lagunak gero eta gehiago dira. 100 lagun lana emateaz gain, urritu horien guztien bizitza kalitatea hobetzea lortu du Gureak-ek. Eta ez bakarrik ekonomiarik dagokionez, hortxe dago eta lanaren isla soziala.

Javier Barrerok hamar urteotako bilakaera ondo eza-gutzen du, eta hasieratik gertatu den aldaketetako bat langileen arteko harremanen estutzea izan da: "Hasieran, hemendik irtetean etxean sartzen ziren, eta horrela ematen zuten asteburua. Urteen buruan, langileen harremanak estutzen joan dira. Koadrillak, bikoteak, aisialdirako aukera mordo... sortzen ikusi ditut. Beste edozein lantegitan bezala." ■

Leire Kortabarria



GOIO ETXABE (PRESO OHIA)

“Gauzak antzera daua

34 urte egin ditu aste honetan Goio Etxabek. Bere bizitzaren azken bost urteak espetxean igaro ditu: Carabanchelen, Ocaña 1ean eta Martutenen. Pasa den hilaren 13an askatu zuten, zigorraren hiru laurdenak pasatxo bete eta gero. Ostiralean, irailaren 1ean, egin zitzaion ongietorria Mondragoen.

— Irten ondoren, zer da egin duzun lehenengo gauza?

— Inguruko lagunekin bazkaria egiteko elkartu eta arratsaldean Udalatxera igo; azkenaldian buruan nuena.

— Zelan ikusi duzu Mondragoe?

— Antzerako. Eraikin berri eta dotoreek harritu nauten. Baita biribil berriek eta hauen lorek... lehen baino zainduago dago herria. Zerrajeran ikusten den zulo galantari esker, alderik-aldeko para-

jea ikusi dezakegu orain... ohitu barik nago oraindik.

— Eta mondragoetarrak?

— Ezagunak antzera, badi-rudi atzo bertan izan nintzela eurekin. Gazteek txunditu nauten gehien, nola hazi diren urte hauetan; ezagutzen nituen neska-mutikoak gizondu eta emakumetu dira.

— Zein egoera bizi izan duzu espetxean?

— Ocañan pasatu dut denbora gehien (lau urte eta erdi) eta batez ere espetxe hura ezagutzen dut. Bigarren graduaren egon naiz eta goizez nahiz arratsaldean nituen patio orduak. Preso zeuden gure lagunekin elkartasunez (bakarturik izaten zituzten) arratsaldeko patio orduak ziegan igaroten genituen. Horrez gain, ez geneukan eskulanak egiteko eskubiderik, ezta ikasketak egiteko ere. Ez ziguten uzten kirol eraikinak erabiltzen, komuni-

kazio mota guztiak esku hartuta geneuzkan... Gure graduari dagokion bizitza “normala” egiten genuen. Patioa zen gure bizimodu bakarra.

— Nola bizi izan duzue Lizarra-Garaziren eratzeari?

— Guztiok bizi izan dugu ilusio handiarekin. Abertzaleen arteko elkarlana ikustea eta horrek ematen duen indarra edo ahalmena Euskal Herriaren onurako erabil daitekeela jakitea, duda barik izugarritzeko


aurrerapausoa dela iruditu zitzaigun.

— ETaren su etenak, mesede egin zion egoera politiko horri?

— Bultzada bat eman zion orduko egoerari, duda barik. Baina gerora egin behar ziren eta egin ez ziren urratsek elkarlana zapuztu zuten eta bakoitza lehenengo parametroetara itzuli zen.

— Lizarra geldituta, su etena bertan behera gelditzeagatik dela esango zenuke?

“Hainbat alderdi politikok baldintzatu dute egoera. Nik hortxe ikusten dut abertzaleen arteko gatazka”



ela uste dut”

— Ez dut uste horrela denik, gehiago da bakoitzak nondik begirutzen dion, zein parametro politikotik. Nahiz eta zenbaitzuk abertzaleak izan baldintzatu egiten dute elkar-lana borroka armatuaren etenarekin. Eta badaude jorra daitezkeen esparru batzuk, borroka armatuarekin zerikusirik ez dutenak.

Beraz, hainbat alderdi politikok aldeztu aurretik baldintzatu egiten dute egoera. Nik gehienbat hortxe ikusten dut abertzaleen arteko gatazka.

— Beraz, barruan egon

zaren urte hauetan ezer aldatu dela uste duzu?

— Gauzak antzera daudela uste dut.

Espetxeetan, adibidez, aldarrikapenak lehengo berak dira: euskal presoak Euskal Herrira, bizi egoera hobetzea... politika orokorra ez da aldatu.

Kanpoan, ilusio handia izan dugu, Lizarra dela, abertzaleen batasuna dela... indar gehiago lortu izan da. Esparru horien murrizketa talka bat izan da, duda barik. Hala ere, lehenago moduan gaudela uste dut.

— Zein da irtenbidea?

— Hainbat alditan hitz egin den moduan, abertzaleen artean gutxieneko printzipio batzuk adostu beharko liriteke eta horiek garatzeko beldurrak uxatu beharko liriteke. Ez dakit gauden egoerarako larregi eskatzea den edo ez, baina beharrezkoa ikusten dut gutxieneko puntu bateratu batzuetan lan egitea eta ez egoitea borrokoa armatuari begira. Azken batean, erakunde armatua sortu zen Euskal Herriak nazio gisa bere aurrerak izan ditzan eta horrek gogor jarraitzen du; badakigu horrek

baldintzatu egiten dituela politika egiteko erak, baina ez luke baldintzatu behar, gaur egun baldintzatzen duen eran. Gauza asko egin daitezke horri begira egon barik.

— Zerbait gehiago esan nahi baduzu...

— Pasa den asteko Arrasate Pressen azaltzen zen Frai Rufinoren esaldiarekin geratuko nintzateke: abertzaleen arteko anaitasuna benetakoa izan beharko litzateke eta gutxieneko komun horietan aurrera egiteko puntu bateratuak bilatu beharko genituzke. ■

ERDU AEK Euskaltegian euskara ikastaroak

izena emateko epea:
irailak 27

- ✓ udalaren laguntzaz
- ✓ beka sistema

Aukera paregabekoa

informazioa eta matrikula:

ERDU AEKn
Garibai, 14, 3
943 77 03 69



æk

Bulego ordutegia:

09:00 - 13:00

18:00 - 20:00

Santurik bariko auzoa



Halaxe da bai. Asteburuan Uribarri auzoko jaiak direla badakigu, baina inoiz ez dugu jakin izan zein santuren izenean ospatzen diren. Haraxe jo eta jai-batzordeko hainbat kiderekin berriketaldian egon ondoren jakin izan dugu horren zergatia: ez da inongo santuren egunik ospatzen!

Jaien jatorri bitxian aurkitu behar da arrazoa: 1987-88. urtea zenean auzotar talde berri batek hartu zuen Uribarriren gidaritzatza. Ordura arte ez zen jairik ospatzen auzoan (baserrietan bai, kalean ez) eta zerbait asmatu beharra zegoela erabaki zuen talde berri horrek. Honela, bada, egutegia eskuetan hartu eta auzoko jaiendako eguna aukeratzeko hasi ziren.

Ez zen erraza izan. Abuztua, jendea oporretan zegoenez, ez zen egokia; ezta opor osteko lehenengo astea ere (jendea ez da batera pozik egoten orduan...). Hirugarren astean, berriz, Besaideko oroimen eguna ospatzen denez, ezin trabarik egin; beraz, erdiko asteburua gertatzen zen bakarrik eta horixe aukeratu zuten. Oraintxe arte.

URIBARRI, EZ ERGUIN

Izenarekin ere nahasketak egon izan dira auzo horretan. Herritar askok Erguin moduan ezagutzen dute baina uribarritarrek argi eta garbi utzi nahi dute, hura Erguin baino gehiago dela, askoz gehiago. Erguin auzoko kale bat besterik ez da.

Mondragoeko auzorik jendetsuena da Uribarri, 6.500-7.000 bizilagun batzen ditu. Kopuru horrek goragaiten du ikasturtea hastean, unibertsitateko ikasleen eraginez.

MONUMENTUDUNA

Auzorik jendetsuena izateaz gain, Euskal Herriko Monumentu bat duen auzo bakarrra da Mondragoen. Gorostiza etxea da titulu horren jabea, auzoaren etxebizitza erraldoien erdi-erdian tinko dirauen baserria.

1980-81. urtean izendatu zuten Euskal Herriko Monumentu. 14 metro luze den baserria da Gorostiza eta bere hormek 1'20 metroko zabalera dute. Etxea egiteko erabilitako harria, Erdi Aroko dorreetan erabiltzen zenaren antzekoa da. Horrez gain, 4 itsu-lehio edo gezi-lehio ditu, baita forma gotikodun atea ere.

Uribarri auzoko alkatea ere ezagutu nahi izan dugu, jaiak direla aprobetxatuz. Felix Iturbe da bere izena, 55 urteko mondragoetarra; pasa den urtarrilaz geroztik da Uribarri auzoko alkate. Hala ere, lehendik ere ezaguna zen auzoan: duela hiru legegintzaldi, lau urtez egon zen alkate moduan eta hurrengo lau urteetan batzordeko kide izan zen.

— Nola deskribatuko zenuke zeure auzoa?

— Bi zatitan dago eginda. Lehen, Uribarri auzoa baserri bakarrak zegoen osatuta; denborarekin etxek egiten hasi ziren: Erguingoak, Uribe auzokoak, Arima Zurikoak, Gorostizakoak eta Larreakoak. 1960. hamarkadatik hona hori dena gehitu da Uribarrin.

Orain arte, bien artean ez dugu harreman larregirik izan, baina hemendik aurrera egoera hori aldatuko dela espero dut. Dagoeneko hasi gara harremanetan eta horietan sendotzea da egin beharrekoa.

— Baserritarrek eta kaletarrek jaietako desberdinak dituzte...

— Horixe da, hain zuzen ere, konpondu nahi duguna: jaietako desberdinak bakarrez bakarrez ipini, abuztuko San Bartolomeetan. Aurretik, gainera, jendea inoiz baino gehiago ari da hori bera eskatzen. Datorren urteko jaietarako auzotarrei kontsulta egiteko asmoa dugu.

— Zer gustatuko litzazuke lortzea datorren lau urteetan?

— Behar asko daude gure auzoan, baina bereziki, Erguin kalea eta inguruak dira behar gehien dituztenak, nahiko larriak, gainera. Herriko udalak badu hori konpontzeko eta berrizteko proiektu bat eta hori jarraipen zuzena egiteko asmoa dut: gune hori ahalik eta ondoen geratzeko.

— Zein izango da aurtengo jaien bihotza?

— Arima-Zuri plaza. Horixe da auzotar gehien biltzen duen gunea eta gainera, bestelako herritarrentzat ere auzoko beste toki batzuk baina gertuago eta eskurago dago.

I g a n d e a
izango da egunik potoloena.



Futbol jokalariaik

IMANOL ETXEBARRIA ETA AITOR L. REKARTE

— **Nola espero duzue denboraldi hasiera?**

— **Imanol Etxebarria:** Zaila izaten da esatea nola izango den lehenengo partida. Lagunarteko partida asko jokatu ditugu eta ez dakit guztiok nahiko genukeen sasoian edo entrenatzaileak nahi duen mailan gauden.

Espero dugu geroz eta hobeto egotea. Lehenengo partidak beti arraroak izaten dira, baina denboraldia oso luzea da eta lehenengo partidetan denetik ikusten da.

— **Aitor Lopez Rekarte:** Ondo. Maila ona dauka taldeak. Jokalari berriak ere ondo integratu dira. Iaz baino osatuagoa dago taldea. Taldea gogoz dabil eta hasieratik gaurak ondo egiteko asmoz.

— **Aurten hiru derbi jokatuko dituzue. Aukeran, noren aurka nahiago?**

— **Imanol :** Derbiak partida zailak izaten dira sortzen den giroagatik; dena dela, derbi tradizionala Errealaren aurka izaten da; Alavesen aurka giro ona egoten da eta aurten Osasunaren aurka ere horixe espero dugu.

— **Aitor:** Berdin dit, emaitza ona baldin bada. Hemen derbiak beti izan dira Athleticen aurka, baina poztekoa da bai Alaves eta baita Osasuna hor egotea, hau da, euskal taldeak egotea.

Osasunaren zelaia gustuko dut; gazte mailan ere jokatu nuen han.

— **Argitu duzu zure egoera taldean?**

— **Imanol :** Momentuz, urtebete gehiago hemen

egingo dut, baina azkena, aurten amaitzen dudalako kontratua. Momentuz, ez daukat asmorik kanpora joateko eta, gainera, ez da egon bestelako eskaintzarik. Gero entrenatzaileak esango du nor izango den bigarren atezaina, zeren lehenengoa nor izango den gutxi gorabehera argi baitago.

— **Clementek "hasieratik" hartu du taldea. Zer espero duzue?**

— **Aitor:** Hori esan zuen berak iaz eta orain ez dauka aitzakiarik. Taldea gogoz dabil eta oso ondo entrenatu da. Hasierako entrenamenduak gogorak egin zaizkigu, denbora asko egin dugu-eta ezer egin gabe. Jadanik hasteko gogoia daukagu, bizitasuna emateko gorputzari.

— **Entrenatzaile berriarekin giroa aldatu egin da jokalarion artean?**

— **Imanol:** Entrenatzaile bakoitzak bere sistema dauka. Ez daude bi berdinak direnak, bakoitzak bere estiloa dauka, baina nire ustez, ondo etorri zaigu: joan denak lau urte egin ditu eta entrenatzaile berria datorrenean zer edo zer gehiago ematen dugu, leku bat egiteko.

— **Jokalari berri asko dituzue. Elkar ezagutzen hasi zarete?**

— **Aitor:** Bai, baina hori betikoa da, lehenengo gaztelaniaz ikasi behar dute eta hasieran berba egiteko nahiko mugatuta egoten gara.



ERRUGBIA Beteranoak eta seniorrak

Arrasate Errugbi Taldeko betaranoek denboraldia jokatu, ez dute jokatu, baina urtean zehar hainbat partida izaten dituzte. Horieta bat irailaren 23an izango dute Katalunia aldean. Hori dela eta, eta senior mailako taldeak aurrendenboraldiko partidaren bat jokatzeko asmoz, bi taldeen arteko norgehiagoka antolatu dute.

Larunbatean bertan, Garagartzan arituko dira senior eta betaranoak elkarren aurka. Hitzordua, arratsaldeko 16:30ean.

FUTBOLA Hasten lehenengoak

Mondra futbol taldeko gazteak izango dira 2000-2001 denboraldia hasiko duten lehenengoak. Eta Atxabalpen hasiko dute, gainera. Igandean, arra-

tsaldeko 16:30ean, Alegiko Intxurre taldearen aurka jokatu beharko du Josu Zubiaren hamaikakoak.

Bestalde, Mondra futbol taldeko neskek, denboraldia hasi aurretik, lagun arteko norgehiagoka jokatu dute aste-buru honetan. Elgoibarren dute hitzordua lehen erregionaleko neskek. Esti Loitik adierazi digunez, "joan den asteko asteazkenean hasi genituen entrenamenduak eta denboraldia hasi aurretik lagunarteko pare bat neurketa jokatu nahiko nituzke".

Momentuz, larunbatean Elgoibarrera abiatuko dira gorputzak berotzen joateko eta denbora izanez gero, 2000-2001 denboraldia hasi aurretik lagunarteko beste partida bat jokatu dute. Izan ere, irailaren 17an hasiko dute aurtengo denboraldia eta ez da denbora asko gelditzen. Hori dela eta, irailean zehar, astero hiru entrenamendu izango dituzte: astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 17:45etik aurrera, Atxabalpen. Elgoibarren irabaztea ondo legoke hasteko.

Mondrak eta Udak erabakiko dute

Arrasate Hiria sariko irabazlea Mondrak eta Udak jokatuko duten partidak erabakiko du. Izan ere, larunbatean bi talde hauek jokatuko dute euren arteko neurketa eta emaitzaren arabera, penaltia ere jaurtiki beharko dituzte, hiru taldeek partida bana irabaziz gero, garaikurra norentzat izango den erabakitzeke.

Joan den larunbatean, 1 eta 0 irabazi zuen Aloña Mendik, bigarren zatian sartutako gol bati esker. Igandean, alde berekin irabazi zion Mondrak Aloñari. Gola Matikut sartu zuen 35. minutuan. Gainera, bera izan zen taldeko jokalaririk nabarmenena.

PENALTIAK

Lehenengo partidari (Uda-Aloña Mendi), penaltien txan-



Ruben Rueda mondragoetarra Aloñan ari da aurten.

dan oñatiarrak izan ziren nagusi eta bigarrenen ere (Aloña Mendi-Mondra), eurak izan ziren nagusi. Horrela, bada, larunbatean Mondrak berdinketa batekin nahiko izango luke txapelketa eskuratzeko.

Neurketa, esan bezala, larunbatean izango da, Atxa-

balpen, arratsaldeko 17:30ean.

MONDRAGOETARRAK BERGARAN

Juanina Garaik zuzentzen duen Bergarako hirugarren mailako taldean, bi arrasatear arituko dira aurten: Harkaitz Gainzarain eta Haritz Arabiourrutia. Haritz iaz Mirandesen aritu

zen eta Harkaitz Mondraren atezaina izan da orain arte. Hemendik aurrera, Bergararen bigarren atezaina izango da. Berak adierazi digunez, "zaila egin zitzaidan erabakia hartzea, batez ere gazte mailatik aritu naizelako taldekide berekin, baina maila honetan jokatzea probatu nahi nuen. Badakit zaila egingo zaidala leku bat egitea taldean, batez ere Bergarako atezaina jokalaririk bikaina delako, baina hogeiru urte ditut eta ikasteko aukera polita iruditzen zait".

Bestalde, iaz Mondran aritu ziren bi bergararrek ere utzi dute Arrasateko taldea: Unai Uribesalgo eta Unai Rollan.

Hauetz gain, Bergarako bigarren taldera ere, bigarren erregionalera, joan dira Arrasateko jokalaririk: Oier Loiola eta Unai Arana.



CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE

University of Cambridge
Local Examinations Syndicate
International Examinations

MATRIKULAK: irailaren 18tik 28ra arte

AZTERKETAK ETA DATAK

F.C.E. (First Certificate English)	Abenduak 16
C.A.E. (Cambridge Advanced English)	Abenduak 13
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)	Abenduak 14
B.E.C. 1 (Business English Certificate 1)	Abenduak 2
B.E.C. 2 (Business English Certificate 2)	Azaroak 17
B.E.C. 3 (Business English Certificate 3)	Azaroak 25

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

ARRASATE Parlance	943 77 06 83
BERGARA Espolon School of English	943 76 03 53
DURANGO CompuBit English Institute	94 620 20 20
EIBAR Anglo-American	943 20 64 57
Link Idiomas	943 20 39 59
Ukitze	943 70 25 59
ELGOIBAR Key Academia de Ingles	943 74 30 44
Kensington School of English	943 74 02 36
LEKEITIO Anglo American - Link Idiomas	
ONDARROA Howdy Academy	94 613 43 26
OÑATI A&M School of English	943 71 61 37

CAMBRIDGE EXAMINATIONS CENTRE
EIBAR ES-438

IÑAKI RIVIERE (MARGOLARIA)

“Arkitekturak paisaiarekin duen harremana da nire gai nagusia”

Iñaki Riviere mondragoetarrak 28 urte ditu, eta horietatik 18 eman ditu margotzen. Irailaren 23a arte, Zarauzko Kale Nagusiko Zazpi aretoan daude ikusgai bere garai guztietako lanak.

—Aspalditik ez zenuen erakusketarik egiten.

—Bai, bi urtetan egiten dudan lehen bakarkako erakusketa da Zarauzkoa. Epe luzea eman dut ezertan parte hartu gabe: ez erakusketak, ez lehiaketak... Hasieran, ahal nuen guztietan esku hartzen saiatzen nintzen, baina orain gauzak patxadaz hartzea erabaki dut. Margotzea, lanen kalitatea zaintzea eta hor-hemen erakusketak egitea, hori dut buruan.

—Arkitekturarekin harreman handia dute zure margoek, ezta?


—Bai, baina ikuspegia aldatzen joan da, Zarautzen ikus daitekeenez. Hasiera batean, eraikin industrialak eta aparailuak margotzen nituen, gizakiaren eta denboraren eragina islatzeko. Ondoren, eraikinen barruan zegoena margotzen hasi nintzen. Orain, arkitekturak paisaiarekin duen harremana da nire gai nagusia.

—Eta zein da zure mezua?

—Eraikinek paisaiarengandik urruntzen gaituztela. Eraikinetatik ikusten ditugu beti paisaiak. Gu eraikinen barruan gaude beti, sekula ez paisaiarekin bat eginda.

—Zure ustez, publikoak mezu horiek jasotzen ditu ala beste istorio batzuk asmatzen ditu?

—Oso zaila da ikusleak margolariak islatu nahi izan duen mezu berbera harrapatzea; bakoitzak bere istorioa



asmatzen du, eta nik nahiago dut horrela izan dadin. Ezinezkoa izaten da margolari batek zer esan nahi izan duen jakitea.

—Bazabiltza beste gai berriren bat ukitzeko asmoarekin?

—Bai. Orain pixka bat alboratuta dudak gaia da, noizbait margotu izan dudalako, baina berriro ekingo diot. Ispilu deformatzaileak islatzen dituzten irudiak margotu nahi ditut.

—Guggenheim museoaren eraikuntza zela-eta, kritika gogor bat margotu zenuen...

—Jendeak proiektuaren aurrean zuen jarrera mutua zalantzan jarri nahi izan nuen: beste kultura egitasmoentzat aurrekontuak murriztuko zirela esan zen orduan. Dena dela, orain museoa abian dagoela, badirudi ondo irten dela, eta nik ere gustuko dut.

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, nekazaritza eta arrantza sektorean teknologoak eta ikertzaileak prestatzeko bekak. Epea: irailak 15.

• “Turismo de España”, turismo alorrean ikerketak edo atzerrian praktikak egiteko laguntzak. Epea: irailak 16.

• Gomez Pardo Fundazioaren eskutik, energiaren arloan graduatu osteko ikasketak egiteko dirulaguntzak. Epea: irailak 22.

■ LANA

• Irungo Udaleko Kirol Patronaturako kirol teknikaria eta administrari laguntzaileak behar dira. Epea: irailak 15.

• Arriaga Antzokirako zuzendaria behar da. Epea: irailak 18.

• Oñatiko liburutegian, haur liburutegiko arduraduna behar da. Epea: irailak 19.

• Huarteko udalerako kirol bateratzailea behar da. Epea: irailak 20.

• Arrasateko Udalak hainbat funtzionario plaza betetzeko oinarri-arauak onartu ditu. Administrari orokorrerako teknikaria, ingurumen teknikaria, aukera berdintasuneko agentea, Ingurugiro Eskolako irakaslea, liburutzailea, zerbitzuetako ikuskaria, gazte informatzailea, 5 udaltzain, administrari laguntzailea, peoia eta kultura ekintzetako 2 langile. Izena emateko epea: EAOn argitaratu zain (iraila-urria).

■ LEHIAKETAK

• Udaleko Gazteria Zerbitzuak urteroko argazki lehiaketa antolatu du. Aurtengo leloa “Gazteak eta arrazakeria” da, zuri-bel-tzean edo koloretan; gehienez hiru argazki aurkez daitezke. Epea: urriak 11.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Ikusle bakoitzak bere istorioa asmatzea nahi dut”

Goikobaluren entseguak hasi dira



Goikobalu Abesbatza lanean da berriro, joan den martitzenean ekin baitzuen entseguai. Aktibitate hasiera aprobetxatuz, deialdia zabaltzen die abesbatzak eurekin bat egin nahiko luketen arrasatearrei. Aurten, berrikuntza moduan, bi talde sortuko dira Goikobalu Txikin: 8-12 urte artekoak eta 12-16koak. Txikien lehen entsegua irailaren 14an izango da, 19:00etan, Gazteluondoko aretoan.

Parte hartu nahi duzuenok, nahikoa duzue Goikobaluren entseguetara agertzearekin edo taldeko baten bati esatearekin. Entseguak honako egunetan izaten dira: martitzenero, 21:00etan Arrasate Musikalen, eta eguenero, Gazteluondoko aretoan, 20:00etan.

KONTZERTUAK AZAROAN

Ikasturte berriarekin batera, gainera, proiektu berriak ari dira ugaltzen: arrasatearrak Bergarako orfeoiearekin elkarlanean ari dira, azaroan elkarrekin hainbat emanaldi handi eskaintzeko asmoz.

Deialdia AEDren bertso eskolarako



lazko bertso-afarian Jon Sarasua eta Imanol Lazkano ere izan ziren.

Hasi da ikasturtea, bai ikastetxeetan, bai eta AEDren bertso eskolan ere. Aurten, aspaldiko partez, berrikuntza bat izango da, gainera: hiru urtez talde berberarekin lan egin ondoren, ikasle berriei aukera eman nahi die AED elkarrekin; hori dela eta, parte hartu nahi duten bertsozale guztiei izena emateko deialdia

zabaltzen die. Irailaren 29a arte izango da epea.

ADINA ETA MAILA

Azken urteotan, 7 lagun izan dira AEDren bertso eskolan; horiek maila sendoa lortu dutenez, ikasle berriei bertso gintzaren sekretuak mamitzeko ordua iritsi da, nahiz eta lehenengo taldeko batzuek jarraitu

gingo duten. AEDk adinen eta mailaren arabera banatuko ditu partehartzaileak: 12-15 urte bitarteko multzo bat eta 15 urtetik gorakoa, bestea. Eskola egunak eta ordutegiak ikasleekin adostuko dira. 3.500 pezetako ordainak matrikula eta egingo diren ekintza guztiak betetzen ditu.

X. Extremaduraren Eguna asteburuan



Corazon de Encina kultura elkarte extremadurarrak bere X. Extremaduraren

Eguna ospatuko du asteburu honetan. Izan ere, irailaren 8an ospatzen du Extremadurak bere egun handia, eta Arrasaten bizi diren extremadurarrak ere bat egingo dute.

Ostiralean hasiko da jaia, Corazon de Encinaren egoitzan egingo den ohorezko toparekin.

JAN ETA JOLASTU

Egun handia zapatua izango da. Orduan, urtero egiten duten bezala, Elkartekoak Landako urtegiaren elkartuko dira, 10:00etan. Han, ume-

entzako jolas eta lehiaketak ospatuko dira, eta ondoren, hatzak miazkatzeko moduko lehiaketak: bazkideek egindako gazpatxo, kalderrata, sandia, meloi eta gazta onenak sarituko dituzte, besteak beste.

Arratsaldean, kuartrola eta emakumeentzako txintxoi txapelketak izango dira. Gazte Sailak kukaina, ginkana, sokatira eta zaku lasterketa antolatu ditu, besteak beste. Ea, bada, eguraldia lagun izaten duten egunpasa atsegina izateko.

irakurle eta entzule

Iturria: Discopolis eta Hire

diskoak

COMPLICES

Complices. Warner, 2.895 pta.



Teo Cardalda eta Maria Monsolisek 80. hamarkadako musika bikoterik entzutetsuenetarikoa osatu zuten,

Complices, alegia. Eta, askok ez bezala, denbora joan ahala ari dira euren hobereana ematen. Euren azken diskoa entzutea besterik ez dago hori egiaztatzeko. Disko borobila benetan, musika heldutasunerira iritsi direneko froga. Garai bateko amodiozko balada atseginak jorratzen jarraitzen dute, baina sinfonikoki oso aberastuak. Horrek abesti aldakorak, harrigarriak, aurpegi askodunak ematen ditu, hasi eta gutxira ezustea ematen diguten melodiak. Eta horien artean, altxor bat: diskoa zabaltzen duena, Olvidos, bizipoza ematen duen abesti horietako bat.

liburuak

LAS HOJAS QUE CAEN

Adeline Yen Mah. (Alfaguara). 388 orr., 2.800 pta.



Adeline, 30. hamarkadako txinatar familia dirudun baten magalean jaiotako bosgarren umea da. Ez du bizimodu erraza izango: ama galdu ondoren, aita bigarren aldiz ezkonduko da, eta ama-

ordeak mespretxuz eta laztasunez tratatuko ditu anai-arrebak. Adelinek ihes egingo du zoritxarretik: bere sentikortasunari eta argitasunari esker, Txinatik Europara eta Estatu Batuetara joango da. Bere iraganeko itzalak ez ditu uxatuko, baina, makurtu barik, gaingitu egingo ditu. Kementasunez eta lirikotasunez idatzitako autobiografia ausarta dugu hau, iraganaren eta modernotasunaren artean borrokan ari den Txina nahasi bat mamizat hartuta. Benetako gogoak nahi dugun lekura eraman gaitzakeela erakusten duen istorio hunkigarria.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Irailak 15: Shelter + Ensign + Nil

Irailak 16: Dance jaialdia

Egun bakoitzerako **3** sarrera zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidali gurera; Arrasate Press, Otolora 31



asteko filma



El Patriota

(The Patriot). Historikoa. EEBB, 2000. Zuzendaria: Roland Emmerich. Aktoreak: Mel Gibson, Heath Ledger. 7 urtetik aurrera.

HARIA

Ipar Amerikako kolonoen ondorengokoe aberritza dute lur hura, eta Ingalaterraren aurka armak hartzea erabakitzen dute. Benjamin Martin, Frantzia eta Indiako gudueta heroia bat, euren buru bihurtuko da...

KRITIKA

Roland Emmerichek ikasi du. *Independence Day* eta *Godzilla* bezalako zeluloidezko komikiak egiteak ekarri zion nahiko nahigabe, eta lehen mailako zinema egiteko gauza dela erakustea erabaki zuen. Eta lortu du: eserlekura itsatsita uzten gaituen filma da *El Patriota*. Onen eta txarren arteko gatazkaren kontakizuna dago muinean, baina pertsonaiak ahaztezinak dira, batez ere protagonista, bere alde ilun eta argitsuakin, Mel Gibsoni dagokion bezala. Bikainki girotua dago, eta guduen sekuentziak, ikuslea harrapatzen duten horietakoak dira.

asteburuan zer

kontzertuak

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Egubakoitz honetan, gaueko 22:00etan, hiru talde arituko dira Gaztetxean jo eta su gaua girotzen: *Obligaciones* eta *Los Padrinos*, biak gasteiztarak, eta Señor No donostiarrak. Gasteizko bi taldeei dagokienez, ez da denbora luzea disko bana argitaratu zutenetik. *Obligaciones* taldeak Milagritos disko-etxearekin plazaratu du bere lana. Bertan,



punk-rock estiloa jorratzen du. *Los Padrinos*, aldiz, rock-and-roll bizi-biziarekin bat egiten du. Hauen azken diskorako, "Sexo" izenekoa, *All Lighters* eta *Quemando Ruedas* talde gasteiztarretako kide ohien laguntza izan dute, eta euren kasa ekoiztu eta atera dute abesti bilduma hori.

Señor No donostiarrak ez daude, akaso, aurkezpen larregiren beharrean. Hauek, hiriburuko Buenavista entsegu lokal oparoek emandako taldeetarikoa bat dira. Hirugarren diskoa dute dagoeneko kalean, eta laugarrena plazaratzeko zorian dabiltza. Kritikariak *Señor No*-ren zuzeneko emanaldiak nabarmentzen dituzte, eta horixe ikusteko aukera izango dugu Gaztetxean.

Mondra-UDA, osorik

Kirolean astelehenean, 21:30

Goiena Telebistak atal berri bat sortuko du, Kirolean, grabaturiko kirol ekintzak osorik emateko. Hasteko, astelehenetan emango da, albistegiaren ostean edo Goienasport hasten denean, kirol saio honen ondoren. Baliteke, asteak aurrera egin ahala, horietako zenbait emanaldi igande gauean ematea ere.

Hainbat kirol sartuko dira Kirolean saioan: futbola, pilota, saskibaloia eta eskubaloia, besteak beste. Batez ere esparru jakin batean jokatzen diren kirolak dira. Hasteko, baina, futbolarekin hasiko da. Datorren igandean Mondra-UDA jokatuko da, Atxabalpen jokatzen ari den Arrasate Hiria futbol txapelketaren barruan. GOITBk osorik grabatuko du eta osorik eman ere, Berrien ostean.

Joan den astean GOITBko talde batek Aloña-UDA norgehiagoka grabatu zuen, proba moduan, eta emaitza oso ona izan zen. Errealizazio lanetan Jon Aldanondo arituko da. Kamera lanetan, berriz, Haritz



Altube eta Andoni Goiti kameralariak.

UNITATE IBILTARIA

Hau guztia unitate ibiltariari esker da posible, Goiena Telebistak bere bitarteko apalekin furgoneta batean antola-

tu duen unitate ibiltariari esker. Bertan kamarak, bideoak eta bideo nahasgai-luak daude. Arrasate eta Aretxabaleta-ko futbolzaleok, beraz, astelehenean duzue aukera zuen taldeak nola dabil-tzan ikusteko.

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 **Egunon Arrasate**, albistegia
Alazne Ostolazarekin.
- 09:30 **Prentsaren errepasoa**.
- 09:55 **Eguneko hitzorduak**.
- 10:00 **Igo autobusera**
Lehenego ibilbidea
Aitziber Aranburuzabalarekin.
- 11:00 **Albistegia**.
- 11:15 **Igo autobusera**
Bigarren ibilbidea.
- 12:30 **Agenda, Oharrak, eskelak...**
- 12:45 **Albistegi nagusia**.
- 14:00-18:00 **Errepika**.

Arrasate Irratiko Postontzia zabalik duzu

ZURE

kexak
zalantzak
eskaintzak/eskariak
gomendioak
zorion-agurrak

EGITEKO

943 71 17 31

09:00 - 19:00



ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

Altzariak Diseinua Apainketa ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

*Ametsetako
sukaldeak*

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR 

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxe berria salgai Bergaran. 80 m² gutxi gora behera. 26,5 milioi pta. Tel.: 630 505 616.

• Atalaya de Aron etxebizitza salgai (Arrasate 50 minutura). Hegoaldera begira, ikuspegi ederrarekin. Lorategi pribatua, igerilekua duen polikiroldegitik gertu. 3 logela, sukaldia, 2 komun, egongela eta gara-jea. Tel.: 941 31 00 10.

• Etxebizitza salgai, Udalpe kalean. 3 logela, kanpora begira, berehala sartzeko. Tel.: 943 79 15 57.

• Eskoriatzako Olazar kalean etxebizitza salgai. 83 m², berriztuta eta garajearekin. Tel.: 943 79 93 14.

• Arrasateko erdigunean etxebizitza salgai. Berrikuntza behar du. Tel.: 943 79 82 47. Ez bagaude, erantzungailuan utzi mezua.

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan, erdialdean, eta egoera onean. 3 gela, 2 komun, egongela-jangela eta sukaldia. Ganbara ere badu. Salneurri egokia. Tel.: 943 79 77 30.

• Etxebizitza salgai. 3 logela, despentsa, bainugela bat, sukalde-jangela. Guztiz hornitua, oso eguzkitsua. Berogailua du. Prezio negoziagarria. Tel.: 943 79 98 14. 21:00etatik aurrera. Juan.

3. Errentan emateko

• Ikasleen pisua alokagai San Andresen. 3 logela. Tel.: 943 79 81 05.

• Eskola Politeknikotik gertu, etxebizitza alokagai. Tel.: 945 44 51 91.

• Etxebizitza alokagai Arrasaten. 4 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela, teilatupea, berria. Tel.: 943 79 79 51.

• Getarin etxebizitza alokagai. 85 m²ko eta itsasora begira. Tel.: 943 83 47 36.

• Logelak alokagai Eskoriatzan, sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 943 71 55 01.

• Etxea alokagai. 4 logela, bi bainu eta bi terraza handi. Guztiz berriztatua. Tel.: 646 79 56 19.

• Etxebizitza alokagai eskola politeknikotik gertu. Tel.: 656 71 09 74.

• Etxebizitza alokagai 4 ikaslerentzat. Unibertsitate 5 minutura (oinez). Tel.: 669 83 94 68.

• Etxebizitza errentan emateko Aretxabaletan. Altzariak ipinita. Tel.: 943 79 04 86.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaearak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaearak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Gela bat alokagai ikasle baten-
tzat. Unibertsitate ondoan. Tel.: 943
79 36 63. Eguerdian deitu.

• Logela bat alokagai Deustuan. Tel.:
657 71 27 30 edo 943 79 60 51.

4. Errentan hartzeko

• Unibertsitateko ikasle talde batek
lau lagunentzako etxebizitza behar
du Arrasaten edo Eskoriatzan. Tel.:
94365 45 22 (Aiala) edo 943 18
74 97 (Gorane).

• Unibertsitateko 3 ikasle pisua alo-
katuko lukete. Tel.: 943 81 54 45.

• Pisu bila nabil Arrasaten edo esko-
riatzan. Tel.: 946 83 24 67 edo 627
64 75 26. Gaez deitu. Ainara.

• Bi lagunentzako etxebizitza alo-
katu nahi nuke Arrasaten. Tel.: 676
551 343. Leire.

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da etxebizitza
osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

• Ikasleen etxe batean logela bat
alokatuko nuke. Tel.: 943 51 93 75
edo 646 52 26 47.

• Aretxabaletan neska bat edo biren-
tzako logela alokagai. Tel.: 655 70
07 05, Bego. 944 42 41 20, Saioa.

• Bi pertsona behar dira Bilbon (San
Inazio) etxebizitza osatzeko. Tel.:
943 77 13 77 edo 945 44 50 53.

• Ikasle batek etxebizitza konparti-
tuko luke familia batekin. Tel.: 945
13 75 44.

• Lagun bat edo bi behar ditugu,
neskak ahal bada, Aretxabaletako
pisu eder bat osatzeko.

• Pertsona bat behar da Salaman-
can pisua osatzeko. Tel.: 617 93
08 44.

• Arrasaten etxebizitza konpartitu-
ko nuke ikasle edo langileekin. tel.:
666 69 19 43.

• Pertsona bat behar da pisua osa-
tzeko. Tel.: 943 67 05 48 edo 943
65 11 61.

GARAJEAK

7. Saldu

• Txindoki dorrean garajea salgai,
goiko solairuan. Tel.: 943 79 24 10.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai Eskoriatzan,
Olaeta plazan. Tel.: 943 71 41 02.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdea 4, behean, 100 m²ko
lokala salgai. Tel.: 943 79 42 65.

14. Errentan emateko

• Elikagaietan aritzeko lokala aloka-
gai. Tel.: 943 79 96 39 (astegune-
tan).

• Etxean eskola partikularrak emateaz
aspertuta zaudela? Lokala bat
alokatzen dizut zure ikasleekin ero-
soago egon zaitezten. Tel.: 943 79
18 70.

LANA

17. Eskaintza

• Medikuntza ikasle bat gaez gai-
xoak zaintzeko prest. Tel.: 943 79
07 03, 943 79 23 17 (Ainara).

• Emakume arduratsua prest lego-
ke umeak zaindu, etxeko lanak egin
edo beste edozein lanetarako. Tel.:
943 79 48 65.

• Emakume batek umeak zainduko
lituzke arratsalde. Tel.: 943 71 53
74.

• Neska prest bulegoak edo etxe-
ak garbitzeko. Tel.: 655 73 54 85.
Miriam.

• Prest nago umeak edo emakume
helduak zaintzeko, eta baita porta-
lak garbitzeko ere. Tel.: 943 79 48
06.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.:
646 76 01 66.

• Neska prest etxeak garbitu edo
umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 15
11.

• Neska bat prest umeak zaintze-
ko, arratsalde. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskaearak

• Neska bat behar da tabernan aste-
burutan lan egiteko. Tel.: 943 79
00 34.

• Pertsona bat behar dut neskatila
bat zaintzeko. Tel.: 943 79 82 18.

• Pertsona bat behar da jatetxe-kafe-
tegi batean lan egiteko. Tel.: 629
94 22 53.

- Neska bat behar da arratsaldez Arrasateko ile apaindegi batean lan egiteko. Tel.: 943 79 25 31, goizez edo arratsaldez. 943 79 18 14, arratsaldez.

- Zerbitzari bat behar da Bergarako kafetegí batean lan egiteko. Tel.: 943 76 59 28.

- Esperientziadun ile apaintzailea behar da. Presazkoa. Tel.: 943 79 03 63.

- Finantza-aholkularia behar da. 30 urtetik gorakoa. Kultura maila ona. Beste lanen bat ere izan dezake. Tel.: 945 14 06 07.

- Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 61 64.

- Taberna batean sukaldari lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 61 64.

- Pertsona bat behar da 4 urteko neskatila bat zaintzeko Erguinen. Presazkoa. Tel.: 943 79 11 67. Goira, lurrindegi berria.

- Aseguru kanpaina batek komertziala behar du Arrasaten. Neska edo mutila, euskalduna, 22 eta 40 urte bitartekoa behar du izan. Formakuntza kanpainaren esku. Interesatuak deitu 607 20 85 57 telefonora.

- Pertsonala behar da posta bana-keta egiteko. Tel.: 943 79 01 86.

- Emakumea behar da 2 ume zaintzeko arratsaldez. Tel.: 610 36 95 32.

- Neska bat behar da sukaldean lan egiteko taberna batean. Tel.: 943 79 00 34.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- DBHko eta LHko eskola partikularak emateko prest nago. Tel.: 943 79 33 39. Ahal bada 21:00etatik aurrera deitu.

- Frantsesezko mintza praktikak eskaintzen dira, uztailaren 2. hamabostaldian. Jatorrizko hiztuna. Tel.: 943 79 57 27. Leire.

- Fisika eta matematikako eskola partikularak emango nituzke, selektibitate mailara arte. Tel.: 943 79 68 29. Esther.

21. Eskaerak

- Filosofia lizentziatua behar da UBIko ikasle bati eskola partikularak emateko. Tel.: 943 79 33 91.

- Pertsona bat behar da DBHko bigarren mailako eskola partikularak

emateko. Tel.: 943 79 82 24. 22:00etan deitu.

MOTORRA

23. Saldu

- Peugeot Speedfight bat salgai dago. Prezioa: 160.000 pta. Negoziatu daiteke. Tel.: 943 79 94 62, gaeuz deitu. Loli.

- Peugeot 205 Diesela SS-AN salgai. Tel.: 639 22 42 52.

- Ford Orion autoa salgai. Egoera onean, kubiertak eta enbrage berriekin. Tel.: 943 78 02 27. Igor.

- Quad Yamaha Blaster 200 cc. motorra salgai. Tel.: 626 79 86 96.

- Volkswagen Golf 2 GTi salgai, kilometro gutxi eta egoera onean. Tel.: 943 79 40 53.

- Seat Panda salgai. SS-AC. Egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 677 42 58 30.

- Cota 348 motorra salgai. Egoera onean. Prezioa: 150.000 pta. Tel.: 29 42 58 30.

- Bigarren eskuko motorra salgai. Derbi Varian. 40.000 pta. Tel.: 666 74 40 35.

DENETARIK

26. Saldu

- Hiru lekuko sofa, bi besaulki eta bi ohe mahaitxoekin salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 53 12.

- Auto gainerako PVCzko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69.

- Trialsineko bizikleta salgai, egoera onean. Tel.: 943 77 03 95. 20:30etik aurrera.

- Roller karabana salgai, abantze-arekin eta guzti. Tel.: 608 67 66 02.

- Karro-denda salgai, osagai guztiekin. Tel.: 943 77 01 70.

- Aluminioko bost llanta, estalki berriekin. Opel Corsa edo Opel Kadet-entzako berri-berriki dira. Tel.: 943 79 93 19.

- Canon EOS-300 kameraren zoom 28/80 objektiboa salgai. Estreinatua gabe. Bermean dago. Prezio onean. Tel.: 943 77 13 02.

- Sukaldeko mahaiak eta aulkiak, 2 ohe, hozkailua eta 2 berogailu salgai. oso merke. Tel.: 943 79 82 47. Ez bagaude, erantzungailuan uzti mezua.

- Urtebeteko mendiko bizikleta sal-

gai. Prezio egokia. Tel.: 943 79 61 25. Jose Mari.

- Piragua salgai, "invader" modelokoa. Hasten direntzako proposa. Tel.: 659 93 53 69.

27. Erosi

- Bigarren eskuko hiru bizikleta behar dira. Tel.: 943 79 09 14. Nerea.

29. Eman

- Bainuko ispilu bat emango nuke doan, bere aplike eta guzti. Tel.: 943 79 43 23.

- 4 txakurkume dauzkat emateko. Tel.: 943 79 55 07.

30. Hartu

- Telebista zaharren bat bota nahi izanez gero, gustura hartuko genuke. Tel.: 616 53 36 76.

31. Galdu

- Gizon batek betaurrekoak galdu ditu. Otolora, Iturriotz eta Olarte artean: Leiar progresiboak dira eta kutxa urdin batean gordeta daude. Tel.: 943 79 61 31. Pedro Luis. Arratsaldez. Sarituko da.

33. Bestelakoak

- Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu

- Lentilla progresiboak agertu dira Maalako Errebalako denda batean. Tel.: 943 79 50 32.

36. Deialdiak

- Kokatutako karabana antzeko bat errentan hartu nahiko nuke abuztuan, bi astez. Tel.: 943 77 01 31.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

- Familia bat behar da, datorren ikasturtean ikasle bat bere etxean hartzeko. Tel.: 943 83 37 45. Josu.

EGITARAUUA
KASTAROA 2000/2001

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autokad
- Programazio informatika
- Ingles eta euskera multimedia
- Gestio kontablea
- Giza errekurtsoen administraketa
- Zerga gestioa
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- Musika informatika (MIDI Sistema)
- Enpresa Zientziak
- Ingenieritza
- Laguntza klaseak


Forcem eta Hobetuz eko ikastaroko %100 subzentionaturak aktiboan dauden langileentzako

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1^º
20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33
Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@tsai.es



Jaiak ditugu asteburuan Uribarrin eta asteroko fotozahar-eran ere haraxe joatea erabaki dugu. Hona hemen zein itxura erakusten zuen 1945. urte inguruan.

Iturripe zaharra ikusten da lehendabizi, argazkiaren ezker-raldean; eskumarantz etorritz

gero, Genaro Etxea (1) dago eta Usaetxe baserria (2) haren ondoan (gaur egun Udala plaza ingurua). Larrea (3) baserria da hurrengoia eta haren atzekoa, beriz, uribarrendarren (4) etxea. Ondorengoia, oraindik zutirik dirauen Gorostiza baserria da (5).

Argazkiaren aurrealdeko

etxeetan (6), berriz, okindegia zegoen, baita errota bat ere eta errota horrentzako malatua edo areka. Periko Arrasaterenak ziren bai errota bai eta okindegia ere. Taberna bat ere egon zen ondoren San Viator eskola egon zen lekuan.

Argazkian ikusten den eliza, berriz, Itxaropen Ama Bir-

jinaren eliza da (7). Horren ezkerrean Gau-Txoriren lur-zatia dago, Nito eta Amat lan-tegiak kokatu ziren tokia, hain zuzen ere.

Argazkia eta berriemaileak:

Felix Iturbe eta Salome Elkorobarrutia.

Bukatu dira oporrak...

...baina anima zaitez, merezi du eta!

Zure oporretako argazkirik edo postalik onenak geurera bidali, eta sekulako afaria irabazteko aukera izango duzu.

Postal eta argazki lehiaketa

Nora bidali: Arrasate Press (Otalora Lizentziatua, 31 ARRASATE 20.500)

Azken eguna: Irailak 11

Saria: Ugaran Jatetxean 4 lagunentzako afari ederra

UGARAN
jattetxea
Arrasate



Zeramika erakusketa eta salmenta

Uribarri Etorbidea, 22-B
Tel.: 943 79 81 80 • Faxa: 943 79 81 80
ARRASATE

<http://www.cim-idiomas.com>

Informa zaitez orain!

Hizkuntzak denontzat

haur, gazte eta helduentzat

- Hizkuntza eta maila guztiak
- Ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Multimedia sistemak

MATRIKULA EPEA ZABALIK

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Avda. de Álava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Fax: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com

Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00 Fax: 943 71 80 51
E-mail: oinati@cim-idiomas.com

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 16 01 55 Fax: 945 16 01 56
E-mail: gasteizbai@cim-idiomas.com

Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)
Tel.: 943 43 81 02 Fax: 943 43 87 26
E-mail: donostia@bai&by.com

bai&by

A H I Z K E S C O O P

sofa
leku

a, eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo

Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 15 03
a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 77 14 92
centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 77 14 92
sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 77 14 92

